

bidaiari

naiz: en bidaia aldizkaria

2022ko azaroa | 014. zenbakia | 1,50€



GALAPAGOAK

Antzinako bidaiari eta animalien babeslekua

FAR NORTH | PARISKO HILERRIAK | ALABAMA | ZAMARIAIN | WAGENYA HERRIA

Badago ezagutzeko mundu bat



bidaiari
naiz:-en bidaia aldizkaria

11 ZENBAKI URTEAN, 15€

HARPIDETU ZAITEZ!

URTEKO HARPIDETZA Euskal Herrian 15€ · Ipar Euska Herrian 25€ · Estatu espainolean 18€ · Europan 50€

Bidal ezazu kupoi hau honako helbide honetara:

Bidaiari Portuetxe 23, 2. solairua 20018 Donostia (Gipuzkoa) EUSKAL HERRIA

Izena			
Abizenak			
Helbidea			
Herria	Posta Kodea	Herrialdea	
NAN	E-Posta	Telefonoa	
Kontu korrante zenbakia			
Kontuaren Jabea			

Nahiago izanez gero, mezu elektronikoa bat bidal dezakezu bidaiari@astero.net helbidera, kupoiaren azaltzen diren datuekin edo www.naiz.eus/bidaiari web orrian sar zaitezke eta harpideteko formularioa bete dezakezu.

Urruina distribution & services, S.L.-ren produktuei eta/edo sustapenei buruzko informaziorik jaso nahi ez baduzu, markatu X bat laukian ☐

Sustapen honen barruan jasotako datu pertsonalak Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) eta Urruina distribution & services SL-en (Kale Nagusia 2 - 4, 48001 Bilbo) datu-base batean sartuko dira. Datuak guztiz konfidentzialak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko lege Organikoari jarraiki. Nolanahi ere, eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezereztzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu. Horretarako, Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) helbidera jo behar duzu.

bidaiari 014

2022ko azaroa

Zazpi Haizetara
aldizkariaren 163.
zenbakia litzatekeena

AZALEKO ARGAZKIA:

John ABERNETHY /
Getty

ARGITARATZAILEA:

Astero.
Herritar Berri SLU.
Zazpi Haizetara
aldizkariaren lan
taldeak ekoiztua.

EDITOREA:

Eguzki
Agirrezabalaga
eta Ion Jimenez

JATORRIZKO DISEINUA:

Grafik Sarea +
Artefakto

MAKETAZIOA:

Oiartso
Los Arcos Urbina

EGOITZA:

Portuetxe, 23 -2. A
20018 Donostia

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

bidaiari@astero.net

TELEFONOA:

943 31 69 99
www.naiz.eus/bidaiari

LEGE GORDAILUA:

01361-2021

INPRIMATZEN DU:

Printek
Inprimategia.
Zamudio



KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

bidaiari 014

AURKIBIDEA



06 DORTOKEN, DARWINEN ETA PIRATEN BABESLEKUA

Ozeano Barearen erdian, Ekuadorko kostaldetik mila kilometrora dauden Galapagoak uharte mitikoetan zehar murgilduko gara. Fauna endemiko harrigarria –iguanak, dortoka erraldoiak, pinguinoak, narrastiak eta hegazti ugari– eta antzinako bidaiarien –Darwin, baleazaleak eta piratak– kontakizun zirraragarrien bitartez egingo dugu bidea naturaren babesleku magiko honetan barrena.



14 FAR NORTH

Zeelanda Berriko “iparralde urrunean”, maorien sinesmenen eta naturaren arteko sinbiosi bikainak ikuskizun eta bizipen apartak eskaintzen dizkigu.

28 PARISKO HILERRIAK

Parisko hilerri izugarriak bisitatuko ditugu, gizadiaren historiako gizon-emakume handien hilobien artean ibilian, haien hilezkortasunaz jabetzen garen bitartean.



36 ALABAMA

Ameriketako Estatu Batuetako Alabama estatuko iparraldean segregazioaren aurkako borrokaren leku garrantzitsuetan izan gara pasieran, Urtzi Urrutikoetxearen eskutik.



44 ZAMARIAIN

Nafarroako Aezkoa bailaran ezkutaturik dagoen behatokia da Zamariain. Kanporantz dagoen haitzera irtenda, haizearen eta naturaren fereka sentitzen ahalko dugu paisaia lazgarri honetan.



04 **BEGIRADA** Txolita eskalatzailleak 22 **TEMATIKOA** Kongoko arrantzale akrobatik 50 **BERTATIK BERTARA** Trans Euskal Herria 54 **EGIN PLANAK!** ‘Sastraka’ erakusketa, ‘Hondamendia’ antzezlan, Zuberoan pasieran 56 **HIRIAK LABURREAN** Istanbulgo zisterna 60 **MUNDUAN PASIERAN** Txori lehiaketa, Atacamako basamortua, naturako soinuak biltzen, auraren argazkia, Orient Express, Frida Kahlo, ‘Frameless’....



TXOLITAK

Futbola 6.000 metrora; elur gainean emakume indigenen alde

Langa berria hautsi du Txolita emakume eskalatzaile taldeak Huayana Potosi mendian, Boliviako La Pazeko erakargarrienetako batean, ia 6.000 metrora futbol partida jokatu. El Alto inguruan, kasakoak, sokak, kranpoiak, eskalatzeko materiala eta jantzi tradizionalak soinean —“pollerak” eta mantak—, bederatzi emakume aimara 20 minutuz aritu ziren pikekin eraikitako ateetan golak sartu nahian. Elurtuta zegoen zelaia eta elur-ekaitz batek harrapatu zituen bertan, baina denak onik atera ziren. Igoeraren aurretik, mendizaleek eskaintza egin zioten Pachamamari (ama lurrari), zorte ona emateko erregu eginez.

Bigarrenegoz aritu zen altuera horretan futboleko emakume indigenen eskubideen alde borrokatzeko 2015ean —hain zuzen, Huayana Potosiren gailurrera (6.088 metro) igo ostean— sortu zen taldea. Ordutik hona aunitz izan dira Txoliten lorpenak mendian: Acotango (6.050 m), Parinacota (6.350 m), Pomarapi (6.650 m), Illimani (6.462 m) eta Argentinako Aconcagua (6.960 metrorekin, Ameriketako tontorrik garaiena da). Kide guztien ogibidea da eskalada eta mendizaletasuna, turista eta eskalatzaile profesionalentzat sukalde eta garraio lanetan —20 eta 25 kiloko zama gainean— ibiliak baitira denak.

2019an estreinatu zuten, Jaime Murciego eta Pablo Irabururen gidaritzapean, eskalatzaile hauen inguruko “Cholitas” dokumentala. Estreinaldian hala laburtu zuen Lidiak esperientzia: «Beti ibiltzen naiz mendian, taldeak eramaten, eta, denbora libre dudanean, jatetxe txiki bat dut El Alton. Beti izaten nuen tontorrera joateko jakin-min hori. 5.200 metroraino iristen nintzen eta ikusten nuen turistak izugarri pozik itzultzen zirela, eta nire senarrari galdetzen nion ea zer zegoen hor goian». Zazpi urteko borrokaldiaren ostean, orain badakite.

Martin SILVA | AFP



GALAPAGOAK

Beste mundu bateko fauna

Testua: **Xavier MORET** Argazkiak: **Alfons RODRIGUEZ**







Ozeano Bareko uharte mitikoak dira Galapagoak, bai fauna endemiko harrigarriarengatik –iguanak, dortoka erraldoiak, pinguinoak eta hegazti ugari–, bai antzinako bidaiarien kontakizunengatik; Charles Darwinek 1835ean egindako bisitarengatik; eta iraganean ur-erreserbak zeudelako eta dortoka-haragia ugaria zelako han izan ziren piraten eta baleazaleen istorioengatik. Arazo bakarra da urruti daudela: Ekuadorreko kostaldetik mila kilometro ingurura. Alabaina, hara iristea lortzen duzunean, berehala sumatzen duzu bertaratzea merezi izan duela.



Tomás de Berlanga Panamako gotzainak aurkitu zituen irla horiek 1535ean. Aurreikusia zuen Panama eta Lima arteko ibilbidetik desbideratu egin zuten itsas korronteek, eta ustekabeaz aurkitu zituen Galapagoak. Halaxe izendatu zituen uharte bolkaniko horiek, han zeuden dortoka erraldoi ugariengatik. Luzaroan, artxipelago horretan ez zen biztanlerik izan, baina gaur egun 35.000 pertsona inguru bizi dira, hein handi batean turismotik. 1959az geroztik, uharteen %97 parke naturala da, eta Ekuadorreko Gobernuak horietan “turismo ekologikoa” sustatzen du.

Darwin zientzialaria bost astez egon zen han, 1835ean, Beagle ontzian naturalista gisa munduari bira luze bat eman zionean, 1831ko abenduaren 27tik 1836ko urriaren 2ra bitartean. Bertako fauna berdingabea izan zen Darwinen eboluzioaren teoriaren inspirazio iturria, nahiz eta bere lan nagusia, “Espezieen jatorriaz”, 1859ra arte ez zen argitaratu.

KAKTUSAK ETA IGUANAK Galapagoetara iristeko hegazkina hartu ohi da Ekuadorreko Guayaquil hiritik. Ordubete eta 45 minutuko hegaldia egin

Ezkerreko orrian, Espainiako uhartea edo Hood uhartea (Suarez lurmuturra). Galapago irlak sumendi jatorrikoak dira. Uharte honek 3,5 eta 5 milioi urte artean ditu. Lerroon gainez, Galapagoetako itsas lehoiak, Daphne uhartetxoaren parean. Kalkuluen arabera, 50.000 inguru bizi dira bertan. Hurrengo orrietan, Hanka Urdineko Pikeroak (Galapagoetako espezie enblematikoa), itsas iguanak, Santa Cruz uharteko dortoka erraldoi basatia, itsas lehoiak, Santa Fe irlako lehorreko iguana...



GALAPAGOAK BESTE MUNDU BATEKO FAUNA



**Kolon uhartedi edo
Galapago uharteak
13 irla handi,
9 ertain eta 107
uhartetxo ditu.
Hego
hemisferioaren eta
ipar hemisferioaren
artean banatuta
daude, eta planeta
osoan beste
artxipelago batean
bakarrik gertatzen
da fenomeno hau.**

ondoren, bat-batean, ozeanoaren handitasunaren erdian, uharte bakarti batzuk agertzen dira. Landaretza gutxi dago, baina fauna ugari. Aireportuko pistatik Baltra uharteko terminalerainoko bide laburrean, kaktus erraldoiak eta iguana batzuk ikustean ohartuko gara han dena desberdina dela. Bestalde, sarrera-baimen gisa 100 dolar ordaindu behar izateak ohar-tarazten du Galapagoak ez direla helmuga merkea.

«Galapagoetara joateko bi modu daude –esan dit Ramirok, Santa Cruz uhar-teko gidari batek–: zeure kabuz edo taldean. Taldean joanez gero, uhartee-tan barna nabigatzen duen itsasontzi batera igo eta fauna ikusteko hainbat lekutan geldituko zara. Garestia da, baina zeure kabuz joaten bazara ere ez zaizu doan aterako. Ehun bat uharte dira, baina hamar kilometro karratu baino gehiagoko hamahiru besterik ez daude, eta bostetan bakarrik bizi da jendea. Santa Cruzen, San Cristóbalen, Isabelan edo Floreanan geratu behar duzu, baina leku interesgarrienak bisitatzeko nahitaezkoa da gida ofizial batekin joatea, txangoak agentzia batean kontratatuta. Garestia da, baina ingurune paregabe hau babesteko modua da».

Galapagoetan nabigatzen duten ontziek –gehienez ere ehun– 96 bidaiari har ditzakete. Hotel handiak ere ez daude baimenduta. Puerto Ayoran (Santa Cruz uharte) edo Puerto Baquerizo Morenon (San Cristóbal uhar-te) daudenak txikiak edo ertainak dira. Urtean gehienez 200.000 turis-tako muga zegoen, baina pandemiak dena eten zuen eta jarduera ekonomikoak erabateko geldialdia izan zuen. Orain, uharteetako biztan-leak pozik daude turismoa itzuli delako.

UHARTE OSO DESBERDINAK Galapagoetan zehar nabigazioa MS Santa Cruz II ontzian egin genuen, Hurtigruten izeneko norvegiar konpainiak kudeatzen duen Ekuadorreko ontzian. Gelen zabaltasunak, liburutegiak, tabernak, jatetxeak eta antolamendu onak bidaia atsegina izaten lagundu zuten, eta fauna endemiko ugariko zenbait uharte bisitatu genituen. Har-raparirik ez dagoenez, animalioak ez ditu ezerk izutzen.

Lehen lehorreratzean, Mosquerako hareatzan, ingurune berezi horrekin aurreneko kontaktua hartzeko aukera dauka bisitariak; itsas lehoien, igua-nen, fragaten eta beste hegazti askoren artean ibil daiteke. Hurrengo egu-netan, MS Santa Cruz II-k gaez nabigatzen du, eguna ernatzean leku interesgarrietara iristeko. Handik gutxira, zodiaketan lehorreratuko gara faunak dena azpian hartzen duen uharte bolkanikoetan.

Besteak beste, Santa Fe, South Plaza eta Seymour uharteetan animalien artean gabilta: itsas lehoiak, iguanak (bai lehorrekoak, bai itsasokoak), al-batrosak, fragatak, sula neboxii-ak (pikero hanka urdina)... Hunkitu egiten gaitu albatrosak edo sulak gorteatzen ikusteak, edo fragata arrak emeak erakartzeko beren papo gorria muturreraino puzten. Uhartetik uhartera iguanek hartzen dituzten kolore desberdinak ikustea da bidaiaren beste pizgarrietako bat.

Santa Cruz uhartean dago hiriburua, Puerto Ayora. Hor merezi du Darwin Fundazioaren Ikerketa Zentroa bisitatzea, non zientzialariak fauna ende-mikoa babesten saiatzen diren, bereziki dortoka erraldoiak. Han landare-

diak eztanda egiten duela dirudi, eta erraza da dortoka erraldoiak ikustea, argazkiak ateratzen dizkieten turistei kasurik egin gabe.

Biztanle gehien dituen bigarren uhartean, San Cristóbalen, dortoka erraldoiak dira erakargarritasun handiena. Hala ere, Galapagoetako 35.000 biztanleetako gehienak bizi diren uharte horietan lehorreratzeak bisitaria bere natur bidaia horretatik ateratzen du nolabait. Gizakiak topatzeak uhartean edertasuna desitxuratzen duela dirudi, baina turismoak funtziona dezan ezinbestekoa da.

ISABELA ETA FLOREANA Galapagoetako uharte bakoitza desberdina da. Handienari, Isabelari, sei sumendik erakargarritasun berezia ematen diote. Sumendien beldur ez diren 2.200 biztanle bizi dira han. Galapagoetako pinguinoak eta ubarroiak eta iguanak ikusi ahalko ditugu.

Gizakiaren presentziak, bestalde, uharte oso interesgarria bihurtzen du Floreana. Hantxe dago Post Office ospetsua: hondartzako hesola batean sartutako upel bat besterik ez da, zeinean XVII. mendetik posta uzten duten handik igarotzen diren nabigatzaileek. Margret Wittmer alemanak “Floreana, lista de correos. Una familia Robinson en las islas Galápagos” liburuan (Editorial Juventud) kontatzen ditu 1930etik aurrera uhartean senarrarekin eta seme-alabekin igaro zituen urteetako bizipenak. Seme-alabetako bat, gainera, oraindik han bizi da, eta uharteetan turismoa sustatzen duen agentzia bat zuzentzen du gaur egun.

Floreanan, garai hartan, pertsonaia xelebre batzuek bat egin zuten: Friedrich Ritter izeneko dentista alemana, bere bikotekidearekin, eta bere burua baroisa izendatu zuen emakumezko bat, hiru maitalerekin. Denak William Beebe naturalista iparramerikarraren, aitzindari ekologistaren, pausoei jarraituz bertaratu ziren. Hark uharteok benetako paradisutzat jo zituen 1923an “World’s End” liburuan. Robinson horien elkarbizitza ez zen batere erraza izan, ordea, eta armatuta ibiltzen zen baroisaren izaera gogorak guztiz argitu gabeko zenbait istilu eta gertaera eragin zituen (bera itsasoan desagertu zen). 2013ko “The Galapagos Affaire” dokumentalak ematen du horren guztiaren berri.

MUNDU BEREIZIAK Nolanahi ere, Galapagoetan nabigatuz uharte bakoitza aparteko mundu bat dela ikasten da, bere fauna endemiko originalarekin eta pirata eta baleazaleen istorioekin. MS Santa Cruz II ontziarekin bidaiatzeak abantaila bat du: gauez ibiltzen da, gida ofizialak ditu eta, ia konturatu gabe, egunsentian beste uharte batean zaude.

Masifikazioa saihesteko, bide batez, Galapagoetako Parke Nazionalaren zuzendaritzak lehorreratze mailakatuak antolatzen ditu, bi ontzi uharte berean edo, gutxienez, badia berean egon ez daitezten. Gisa horretan ez dugu estutasun sentsaziorik izango, eta leku oso urrunean dauden uharte sorginduak bisitatzearen zirrara areagotzen da. Hala erakusten du “Master and Commander” (2003) Peter Weir-en filmak, Patrick O’Brianen marinelnobela liluragarrietan inspiratutakoak –besteak beste, “The Far Side of the World”–. Galapagoen edertasun osoa erakusten du filmak, munduaren azken muturreko uharteak balira bezala.

GIDA PRAKTIKOA

DIRUA

Ekuadorrek 1999tik AEBetako dolarra erabiltzen du moneta ofizial gisa.

BAIMENAK

Uharteetarantz ontziratu aurretik 20 dolar ordaindu behar dira, eta 100 dolar, billeteetan, Galapagoetako Parke Nazionalen sartzeko. Azken horiek helmugako terminalean ordaintzen dira, Guayaquiletik datorren hegalditik jaitsi ondoren.

NOLA IRITSI

Goi-denboraldian bost hegaldi izaten dira egunero Guayaquiletik Baltra uharteraino (Galapagoak), eta gehienak Latam eta Avianca konpainiek egiten dituzte.

KLIMA

Itsas korronteen mende dago klima. Urtaro beroan, urtarriletik maiatzera, euriteak eta temperatura altuagoak izaten dira. Urtaro lehorrean, ekainetik azarora, zerua lainotuta egoten da. Ekaina, uztaila eta abendua dira Galapagoetara bidaiatzeko hilabeterik onenak.

NABIGATZEA

MS Santa Cruz II da Hurtigruten konpainia norvegiarrak (www.hurtigrherreria.com) uharteetan nabigatzeko kudeatzen duen ontzia. 96 bidaiarirentzako lekua du eta 50 gela ditu. Bost eta zazpi egun arteko bidaiak egiten ditu uharteetan.

FAR NORTH

Antipoden mugaldea

Testua eta argazkiak: **Xabier BAÑUELOS**







**Ozeanoaren erdian dagoen leku galdua,
Tasmaniako itsasoa eta Pazifikoa bereizten
dituen kai-mutur naturala, gizakiak denbora
ahazten duen gunea, haizearen adiskide
bihurtzeraino. Duna izugarrietara igo eta
tonboloak zeharkatuko ditugu miliak eta miliak
dituzten hondartzetan, hildakoen espirituek
beren behin betiko bizilekuranzko abiapuntua
duten leku sakratura iristeko.**



O zeanoko brisa dabil, haizeen noranzkoa aldatu aurretik. Te Rerenga Waitua-tik gora egiten du, aparrezko eta harkaitzezko muinoak saihestuz, eta gure azala laztantzen du, izara azpian elurrezko esku bat balitz bezala. Haren igarotzeak hotzikarak eragiten ditu ariman, dardara atsegin eta zirrargarri bat, zeinak lainoak estalitako zerumugarantz begiratzera bultzatzen gaituen.

Eguzkia sartzeko ordu batzuk falta dira oraindik.

Bidean aurrera egiteko ahaleginean dabil argia. Eta, arratsaldea estaltzen duen errezela zeharkatzea lortzen duenean, tul eta parpailen nahas-mahasa sortzen du. Une horretan badirudi Cape Reinga-ko itsasargia espirituekin dantzan ari dela, horiek *manawatawhia* beren azken arnasa balitz bezala bota eta beste mundura joan baino lehen.

Maorien sinesmenaren arabera, pertsona bat hiltzen denean, haren espirituak, *wairua*-k, bere azken bizilekura iristeko bideari ekiten dio. Ibilbide



**Erreportajea irekitzen,
Hokiango dunen
ikuspegi aparta. 16.
orrialdean, Waipoua
basoa, bizirik dauden
kauri zuhaitz
handienak izateagatik
nabarmentzen dena.
Lerroon gainea, goian,
Haruru ur-jauzia;
behean, zurezko zubia
Waitangi basoan;
erdian, Te Reinga edo
Te Rerenga Wairua,
Reinga lurmuturra;
eskuinean, goi-behe,
Waitangi etxe maoria
eta Bay of Islands.**



sakratu hori Te Ara Wairua da, eta bide horretan ibiliko da, harik eta abia-puntuan, Te Reingan, itsasoarekin topo egin arte. Han *whakaau* bat, bere seinalea, utziko du; maskor bat (kostakoa bada) edo hosto bat (basoetatik badator). Ondoren, bere uharteari azkenengoz begiratuko dio eta mundu materiala utziko du, Hawaikira itzultzeko, polinesiar herriaren alfa eta omegara.

Itsasargiaren ondoan, Zeelanda Berriko kostaldearen zati iparraldekoenaren gainean, azken mugara iritsi gara. Bere muturrean, Kapa Wairoa-ko badia txikia ixten duen azken arroka puskan, Te Aroha, arimen zuhaitza, maitasunaren arbola, zutitzen da. Ozeanotik harago, dena eta ezer ez.

Honaino iristeko, guk ere geure bidea egin behar izan dugu, ustekabeko paisaiez gozatuz. Auckland-en hasten da ibilbidea eta 600 kilometro ditu Northland penintsulako kostaldean zehar, Far North zeharkatuz eta Au-



pouri penintsulan jarraituz, Ozeano Barearen eta Tasmaniako itsasoaren artean dagoen tonboloan aurrera eginez.

IPARRALDEAREN HEGOALDEAN Northlandeko barnealdea tontor handirik gabeko landazabal ondulatuz beteriko paisaia da. Bere klima bezain leuna da, muturreko ezaugarrik ez duena, eta hain da neurritsua, ezen bere biztanleek “Negurik gabeko iparralde” esaten baitiote. Bere kostaldeak elkarren artean oso desberdinak dira. Ekialdekoa modu basati eta irregularraren apurtzen eta banantzen da, lurmuturren eta lurraren tolesturen artean ezkututzen diren zoko eta badiak sortuz. Mendebaldekoak, berriz, marrazketa-lumarekin trazatua dirudi, Tauroako kai-muturrak eta haren duna-eremu ederrak banatutako bi zatitan.

Iparralde Urruneko muga zeharkatu baino lehen, Paikiri hondartzan gel-dituko gara, bertako txenadek, itsas mitek eta zinemaskopean ageri diren

**Paisaia bereziz,
kostalde eta duna
malkartsuz eta
mitologia
aberatsez betetako
herrialdea da
Zeelanda Berria;
izen ezin egokiagoa
jarri zioten hango
biztanleek,
maoriek: Aotearoa,
“hodei zuri
luzearen
lurraldea”.**

uharte ugariek erakarrita. Mendebaldera igarota, Matahoke-ra joango gara Kauri museoa bisitatzen. Hala, ezin hobeto prestatuko dugu hurrengo geldialdia; Far North-en egingo dugu hori, Waipoua basoan; izan ere, duela urte gutxi arte, kauri zuhaitza (*Agathis australis*) zen lur horietako benetako erregea.

Latitude horietako espezie endemikoa zen, eta baso mistoak osatzen ziotuen. Bere itxura zuzen eta ikusgarriak, sekuekin lehiatzeko gai zenak, txiki egiten zituen podokarpus espezie desberdinak zein taraiak eta tawak.

Baina ia desagertzeraino moztu zituzten, eta gaur egun baso txikietan gutxi batzuk geratzen dira. Waipouako behatokitik ez oso urrun, bidezidor batek oihanartean barneratzen gaitu, Tane Mahuta-ri, “Basoko Jauna”-ri ohore egiteko; gaur egungo handiena da, 51 metroko altuera eta 4,4 metroko diametroa duena. Ez dago oso urrun Te Matua Ngagere, “Basoaren Aita”, zertxobait txikiagoa baina zaharragoa, eta, aditu batzuen arabera, lau milurteko dituen.

Kostaldeko lerroa, Kaipara Harbour badia itxitik abiatzen den hondartzaz beteriko lerro zuzena, bat-batean, basotik kilometro batzuk iparraldera egindakoan, Hokiango estuario sakonak hausten du. Pakia Hill-en gainaldetik, Omaperera iritsi aurretik, itsasoaren sarrera hareazko mokoa duen dortoka handi baten ahoa bezala irekitzen da; Te Pouahi-ko dunak dira. Ferrya apur bat ekialderagotik ateratzen da. Beste ertzean eramango gaitu Rawenetik, biraka jarraitzeko, silizeak eta gatzak irensten gaituzten arte.

IPARRALDEAREN IPARRALDEAN Harea eta itsaso betekada hori Ahipara badiara iristean hasten da. Tauroako duna horien azpian, Shipwreck Bay-ko (Te Kohanga) olatuak paraleloki lerrokatzen dira surfarien gozamenarako. Lehorrean, herrialdeko hondartza ospetsuena jaiotzen da, Te Oneroa-A-Tohe edo Ninety Mile Beach, Aupouri penintsularen mendebaldeko hegala osoa hartzen duen “90 miliako” hondartza. Berez 55 dira, baina horrek ez dio ikusgarritasunik kentzen.

Hondartza luze eta bakarti horren konpainia bakarra itsaso irekia da, infinituan galtzen dena, urre-koloreko kosta-lerroaren ondoan. Etengabe hara-hona dabilela, urak zeruak eta hodeiak islatzen ditu ispilu-xafletan, urre-ogizko hondoaren gainean. Hari begiratzea gozamen da, eta 4x4 batean zeharkatzea, sekulako abentura, Te Paki Stream-eko hareazko mendietako paroxismoa helmuga izanik.

Hamar kilometroko luzera bider kilometro bateko zabalera, 150 metroko altuera gainditzeko duten duna erraldoiek estalita. Mendebaldeko haizeek ekarritako harea da, itsasoaren eta landarediaren artean metatua, eta us-tekabeko *erg* (hondar-eremu) neurrigabea osatzen du.

Hondartzaren atzean, Maria van Diemen lurmuturraren tonbolo ederrean itsasertza tolesten duen urautsi bat zabaltzen da. Manawatawhiak, haize bihurtuta, gidatuko gaitu hemendik Reingako itsasargira. Sandy, Tapotu-

potu, Piwane eta Takapaukura badia bakartien gainetik hegan goaz, Hikura edo Survilleko labarretara iritsi arte. Han aurkituko dugu, azkenik, behin betiko iparra, iparraren iparra. James Cook-en North Cape-n edo maorien Otou-n amildutako iparraldea da.

Gure itzuleran, kostaldea zuloetan eta zatietan apurtzen da, profil tortu-
ratuak marraztuz, baina nabigatzaileentzako atsedenekuak, badia eta se-
nadiak sortuz; Parengarenga, Houhora, Rangaunu eta Whangaroa,
esaterako. Horrela, Bay of Islands-era iritsi arte. Badia ero eta urratua,
malkarrez eta txokoz betea. Xarma eta emozioa da, edertasun labirintiko
eta kaotikoa, eta, onerako edo txarrerako, gizakiak otzandu egin du eta
belaz, gilaz eta lemaz betetako paradisu bihurtu du.

Baina uharteetako badiak historiaren pisua ere badu, XIX. mende hasieran
Zeelanda Berri modernoak sortu zenekoa, alajaina! Kororareka Bay-ko olatu
ezin lotsatiagoek bustitzen dute Russell. Tauiwien lehen kokaleku iraun-
korra izan zen artxipelagoan. Hala deitzen zieten maoriek lehen baleaza-
leei, foka-ehiztariei eta, ondoren, kolonoei eta misiolariei; alegia, uhartera,
gure antipodara, baimenik eskatu gabe iristen ziren azal argiko eta aurpe-
gian tatuajerik ez zuten izaki arrotzei.

Kolonia berriko lehen hiriburu bihurtu zen, geroago haien ondorengoek
(*pakeha*) estatu bihurtuko zutena. Oraindik ere kutsu kolonial horri eusten
dio giro lasaiko eta aisiarako herri txikiak.

Benetako turismo-zentroa Paihia da eta ferryz irits daiteke Russeletik. Ja-
tetxeak, ontziralekuak eta merkataritza-guneak aurkituko ditugu hor.
Baina historia ere badu; Waitangi-n sinatu zuten britainiarrek eta maoriek
1840ko ituna, zeinak batzuk eta besteak Victoria erreginarene mendekotzat
berresten zituen.

Treaty Grounds museo-gunean ikus ditzakegu Treaty House (Itunaren
Etxea), Te Rau Arohan eta Te Kongahu museoak, Te Whare Runanga maori-
en bilera-etxea, eta Ngatokimatawhaorua, munduko *waka* (kanoa) zere-
monial luzeena. Memoriala Treaty House-ren aurrean dago: herrialdeko
bandera astintzen duen itsasontzi-masta bat da, eta belazurrunaren alde
banatan, berriz, Erresuma Batuko eta Zeelanda Berriko Tribu Batuen ban-
derak daude.

Itzulerari ekin aurretik, Waitangiko basoan naturaz gozatzeko beste aukera
bat izango dugu. Bere zubi, pasabide eta bidexketatik mangle bihurrien
eta espezie exotikoen hostotza nahasian barneratuko gara, eta Haruruko
ur-jauzi txiki baina ederretara iritsiko gara. Han kiwi marroi zaputx (Ap-
terys mantelli) ugari dago oraindik.

Orain, bai, prest gaude atzera buelta egiteko. Gure Te Ara Wairua partiku-
larra joan-etorrikoa da, eta gure espiritu hilgarri eta mundutarra abiatu
ginen tokian bertan utziko du: Auckland modernoan eta zibilizatuan.
Baina paisaia bereziz eta mitologia aberatsez betetako etapa zoriontsua
baino ez da izan, Aotearoa (Zeelanda Berria maorieraz), “Hodei zuri luzea-
ren lurraldea”, ezagutzen jarraitzera bultzatzen gaituena.

GIDA PRAKTIKOA

NOIZ JOAN

Iraila eta abendua bitartean eta
martxoa eta ekaina bitartean.
Zenbat denbora. Lau egunetik sei
egunera, artxipelagoan barna
bidaia zabalagoa egiteko.
Badaezpadako neurriak.
Hareatzak autoan gurutzatzeko
tentazioa izaten da beti, baina
kontuz ibili behar da mareekin
eta harea ez-trinkoko eremuekin.
Izan ere, alokairuko enpresa
gehienek berariaz debekatzen
dute, 4x4 ibilgailua izan ezean.
Ibilaldi antolatuan ere egin
daiteke.

JARDUERAK

Ninety Miles Beach-eko puntu
batzuk surfean aritzeko
herrialdeko onentzat hartzen
dira. Duna-eremuetan, bereziki
Te Paki Stream-en, jende askok
sandboarding-a egiten du.

Wagenya herria

Kongoko
arrantzale
akrobatak



Testua: **Gaizka MARTINEZ** Argazkiak: **Guerchom NDEBO** | AFP



Kongo ibaiko lasterren ur burbuilatsuetan, kapitain eta tilapia arrainak harrapatzeko asmoz, euren egurrezko aldamio ikusgarrietara igotzen jarraitzen dute wagenyek. Kongoko Errepublika Demokratikoaren ipar-ekialdeko akrobata arrantzale ezagun hauek, baina, etorkizun iluna aurreikusten dute: ibaiaren gain-ustiaketa onduz arrantzak behera egin du azken hamarkadetan eta, koronabirusa dela eta, duela bi urtetik hona diru iturri nagusia zuten turistek ekarpena ia erabat galdu dute.



WAGENYA HERRIA KONGOKO ARRANTZALE AKROBATAK





Wagenya herriak Kisangani-n, Tshopo izeneko probintziako hiriburuan du jatorria. Lehen Stanleyville gisa ezaguna izan zen hiria, hala izendatu baitzuten, 1877az geroztik, Henry Morton Stanley hara iritsi ondoren. Stanleyk eman zuen wagenyen berri aurrenekoz Mendebaldean, baina gizaldi hagitz lehenagotik dira han. Eta haien bizimodua ez da ordutik asko aldatu, iraganean arbasoek egin bezala arrantzatzen baitute egun ere, Kongo ibaiak puntu honetan eskaintzen dien egoera ezin hobea probesturik. Ur bizien azpitik harkaitz-ertz baxu eta zorrotzak azaleratzen dira, ur-lasterrak sortuz. Hori dela eta, Kongo nabigatzea ezinezkoa da hemendik aurrera eta ibaia mozteko aukera dute.

Bertako kulturaren eta identitatearen sinbolo kolektiboa den eta tolimo deritzon sistema baliatuz arrantza egiten dute. Elkarren artean atxikita dauden eta harrizko zulo naturaletan paratzen di-

tuzten egurrezko zutoin batzuen bidez, aldamioak osatzen dituzte. Egitura horietatik, liana batzuekin loturik, tranpa zorrotz handiak eskegitzen dituzte, eta hauek ur-korronte indartsuan murgilduz harrapatzen dituzte arrainak. Ikusgarria bezain arriskutsua, haien ogibidea.

ZUHAITZ ERORIARI OROKEGURRA Arriskuz beterikoa eta mantentzen zaila halaber. Duela 15 bat urtera arte Estatuak diruz laguntzen zituen aldamioak eta saskiak konpon zitzaten, baina babes hori bertan behera geratu da. «Lan hau gure arbasoek utzi ziguten, egin behar dugu, baina egoera honetan zaila da oso» dio AFP agentziari Andjoipa Aluka 27 urteko bi seme-ren aitak. Arrain-espezieen kopurua ere murriztu egin dela dio, «atseden denborak errespetatzen ez direlako». Bioaniztasuna erasotzeak, finean, ekonomian eta elikaduran eragin zuzena dauka.

Aldi berean, etxolak, sua eta arrantza egiturak sortu eta mantentzeko baliatzen zuten aldameneko baso komunitarioko zura ere enpresa batzuen esku utzi dute instituzioek, wagenyak



haien lurretatik lekutzera behartuz. Hainbat kilometro egin behar dituzte orain egurra aurkitzeko eta biltzeko.

Atzerriko bisitariei arrantza era berezi hau irudikatzen duten egurrezko figuratxoak salduz, zonaldean barrena txangoak antolatuz eta ostatua emanez lortzen zuten bizitzeko adina. Baina, egun, ahanzturan murgildurik bizi dira. Bide eta errepideek mantenu eskasa dute, argindarra ere faltan da askotan, eta aldirietako erakargune eta memoria gune ia guziek ageriko kalteak dauzkate, Patrice Lumumba Kongoko independentzia-aren heroiaren monumentua kasu. Zoologikoan ez da animaliarik. Aireportua inoiz amaitzen ez diren zaharberritze lanetan da eta, hori gutxi balitz, kerosenoaren gabeziak hegaldi aunitz atzeratu edo bertan behera utzi ohi ditu.

KOMUNITATEAREN INDARRA Arrantza eta Kongo ibaia dira Wagenya herriaren bizitzaren erdigunea; Wagenya ur-jauzia deritzo haien lur eremuan dagoen Kongo emaritsuen zati honi. Bazter eta ur hauetan burutzen dituzte erritu gehienak. Haien sinesmenen arabera, arbasoen ibaia da hau; bertan, ur-

jauzien azpian, bizirik jarraitzen dute hil ostean, eta itota hiltzetik babesten dituzte.


Komunitatearen indarrak berebiziko garrantzia izan du eta izan du ere, etorkizunean, herri honen iraupenean. Egun hiru klan eta bost subklanetan antolaturik dira. Buruzagi bakarra izaten dute, zaharrenen artean hautatzen dutena. Agintarien aurrean bozeramailea eta solaskidea da bera, eta taldearen barnean ere tutore edo gidaritza lanetan dihardu, sortu daitezkeen arazoetan bitartekaria izanik. Azken urteotako eztabaida eta liskar batzuk direla-eta, ordea, ez dago funtzio hau betetzen duen inor.

Hala ere, lehen egin moduan, orain ere gurasoek semeek erakusten diete ofizioa. Semeek, gainera, sendiaren aldarmioak eta arrantza kuxak jasotzen dituzte oinordetzan. Eta arrainak direla, zura dela edo dirua dela, wagenya guzien artean banatzen dira dauzkaten ondasun apurrak. Nolabaiteko gizarte-berdintasun eta -oreka lortuz. Izan ere, oztopoak oztopo, wagenyek argi dute arrantzatzen duen herria ez dela inoiz hilko.

HILEZKORTASUNEAN BARRENAKO IBILALDIA

Parisko hilerriak





OLAI ROUSSEV
1805





Testua eta argazkiak: **Joseba ZABALZA**

Argien Mendeko Paris erromantiko eta hilezkorren arimaren benetako aztarnaren bat aurkitzea ez da erraza gaur egun, bihurtu den megalopoli azeleratu, kontsumista eta postmodernoak parke tematikoa bihurtu baitu hiria. Bisitatu beharreko lekuen artean, noizbait izan zen hiria eta berau eraiki zuten gizon-emakumeak gogoratzera gonbidatzen gaituzte Père Lachaise, Montparnasse eta Montmartreko hilerriek. Horietako batean sartzea denboraren makina batean sartzea da, bertatik munduaren historia ikuskatzeko.




Parisko hilerri izugarriak bisitatzea gizadiaren historiako gizon-emakume handien hilobien artean paseatzea da, marmol zuriaz eta harri grisaz harago, mendez mendeko saltoka ibiltzea, haien musika entzutea, haien poemak erreztatzea, haien eleberriak berrirakurtzea eta margotu zituzten koadroek duten kolore-paleta biziaz gozatzea. Beren bizitza eta obrei esker heriotza gainditu zuten, hilezkorak dira alegia. Heriotzaren oinazea hurbiltasunagatik pairatzen dela diote, baina hildako hauek, gure odolaren parte ez izan arren, gure parte dira, zirrara eragiten digute, ezagutzen ditugu, gurtzen ditugu, baita maitatu ere.

Kanposantu hauetatik promenatzen denak harriduraz ikusiko ditu garai eta baldintza guztietako mitoen hilobiak. Zur eta lur geratuko da artista handien panteoietan astero lore fresko eta biziak egoten direla konturatzean. Familiaren leinua desagertutakoan, nork jartzen ditu loreak ahanzturaren hilobietan? Nork gordetzen du maitasuna? Nork zor die zerbait ospe handiko hildako hauei? Ezbairik gabe, bizirik ezagutu ez zen harekiko zorra aurkitzen ahal dugu hemen. Hango hura ez zen laguna, ezta ezaguna ere. Alargun eta alaba penatuak ere ez dira bizi, jada ez da existitzen doluminik eman ahal zaizkion inor, ez da inor ere konpromisoagatik, ikus gaitzaten beste asmorik gabe, bisita egitera behartuko gaituenik. Eta, hala ere, hunkigarria da bere gorpua non dagoen aurkitzea. Bera, Hipnosen betiko ametsean, eta zu han, zutik, gure patu amankomunari aurrez aurre begira, eta pentsatuz: nola demontre ezin da orain bertan altxatu?, zergatik ez da ibiltzen hasten? Pertsonaia sonatuak eta mitoak, gizon eta emakume handiak, hilkor guztien lokatz berberaz eginda daudela egiaztatuko duzu.

MONTPARNASSE: SARTRE, BEAUVOIR ETA CORTAZARREN ARTEAN Montparnasseko hilerria 1824an sortu zen eta izen bereko auzoko leku erakargarrienetakoa da, Frantziako hiriburuko 5. arrondissementean kokatua. Bere 18,72 hektareekin, Parisko harresi barneko bigarren nekropoli garrantzitsuenak da.



Erreportaje hasieran, Nikolai Roussev musikariaren hilobia Montparnasseko hilerrian; eta hurrengo orrian, hilerri beraren ikuspegi orokorra. Orriotan, ezker-eskuin, goi-behe, Frederic Chopinen eta Oscar Wilderen hilobiak Père Lachaise hilerrian; bi aurpegiak Victor eta Jacqueline Brauer-en hilobia dira, Montmartren; Niki de Saint Phallek lagun zuen Jean-Jacques-i eskainitako txori-eskultura; Jim Morrison-en hobia (Père Lachaise); eta Sartre eta Beauvoiren hilobia (Montparnasse).



PARISKO HILERRIAK HILEZKORTASUNEAN BARRENAKO IBILALDIA



**Sacré-Coeur
basilikaren
ondoan,
Montmartre
hilerriko zuhaitz
ugariek (astigarrak,
gaztainondoak,
tilak eta zureak)
paseatzeko leku
aproposa bihurtzen
dute, Stendhal,
Zola, Moreau,
Berlioz, Guitry eta
Dalidaren hilobien
artean.**

Hilobi eta panteoiz sorturiko itsasoaren artean adarkatzen diren etorbide zabalak ditu, eta 30 mailatan egituratuta dago. Egituraketa horretan 140 pertsonaia ezagunen hobiak daude, baita hain ezagunak ez diren hamaika gonbidatu ere, baina haien hilobi dotoreek eta bitxiak bisitarien arreta berdin-berdin erakartzen dute.

Hala ere, hilobi horien jabeetako batzuk sarrera nagusian atezainek eskaintzen duten doako mapan aipatzeko moduko inor ez direla egiaztatzea etsigarria da oso. Cesar Baldaccini edo Baltasar Loboren mailako eskultoreak ahazteak ez du barkamenik, Ukrainako gerra ministro ilun bat izan zen Simon Petliura delakoa VIPen artean sartzen den bitartean.

Bertan atsedean hartzen duten pertsonaia ospetsuenen artean, Jean-Paul Sartre filosofoa, hainbeste maite izan zuen Simone de Beauvoirren ondoan. Eta Baudelaire eta Tzara poeta handiak ere nabarmendu behar dira. Han daude, halaber, Charles Pigeon asmatzailearen, Gyula Brassai eta Man Ray argazkilarien eta Samuel Beckett, Eugène Ionesco, Marguerite Duras eta Julio Cortázar idazleen gorpuk. Azken hau Carol Dunlop artista eta neska-lagun kanadarrarekin batera hilobiratuta dago hilarri xume baten azpian. Cortazarrek berak diseinatu zuen monumentua Julio Silva lagun leialaren laguntzaz. Azken honi honela idatzi zion: “Ondo pentsatu ondoren, konturatu nintzen ‘épouse Cortazar’ (Cortazar emaztea) izugarria zela eta kendu egin nuen. Carolek bera zenagatik, bere horretan balio zuen”.

Mapan gaizki kokatuta egonagatik, topatzen zailenetako bat da Guy de Maupassant frantziar eleberrigile handiaren hilobia. Ordu erdi baino gehiago haren bila ibiltzeak pentsatzen jartzen gaitu: ez ote da txantxa makabro bat izango, goizaldeko ordu txikiak arte haren liburuetara itsatsirik mantentzen gaituen moduko beste erokeria edo misteriozko bilbe bat?

MONTMARTRE: MARGOLARIEN AUZOKO HILERRIA Parisko auzunerik bohemioenean kokaturik dago hiriburuko hilerri handienetan txikiena. Itxura desordenatua eta zuhaitz ugari ditu. Haize-egunek adarrak amorruez astindu ohi dituzte eta baita baten batzuk lurrera bota ere; horregatik, ohikoa da halakoetan, hots, askotan, itxita aurkitzea. 1825ean eraiki zen kanposantu gisa, eta hango “biztanle” asko margolarien auzoko rue zaharretan bizi izan ziren artista loriosak dira.

Hilerri honetako hilobirik bisitatuenak Edmond eta Jules Goncourt eta Stendhal idazle ospetsuenenak eta DeGas eta Guillaumet margolarienak dira. Musikariaren artean ezagunena Hector Berlioz da, eta poeten artean Heinrich Heine aurkitu dugu. Hain famatuak ez direnen artean, bere edertasun aztoragarriagatik nabarmentzen da Vaslav Nijinskyren hilobia, «Dantzaren Jainkoa» delakoa, dantza modernoaren aitatzat hartzen den dantzari psikotikoa bera. Bere betiko atsedena alaituz lore-sortak aurkitzen ditugu beti.

Pertsonaia ospetsuen artean, Émile Zola naturalistarena da bilatuena, nahiz eta alferrikako saiakera den; izan ere, haren gorpua Pantheonera eramán zuten, Voltaire, Rousseau, Victor Hugo, Marie Curie, Malraux eta

“Frantziako 77 gizon handiekin” batera, zeinak Jainkoen Olinpotik gertuago dauden harrezkero.

PÈRE LACHAISE: WILDE, MORRISON ETA CALLAS Denetan handiena, antzinakoena eta ezagunena da, eta bertan daude, frantziarrak ez ezik, munduko beste leku batzuetako pertsonaia ospetsuen gorpuzkiak. 1804an eraiki zuten, eta Luis XIV.a erregearen konfessore izandako jesuita frantses batek ematen dio izena. Hasiera batean, auzune pobre eta herrikoia izateagatik, paristarrek ez omen zuten haien burua han lurperatu nahi. Hala ere, La Fontaineren eta Moliereren gorpuak han lurperatu ostean erabat aldatu zen jarrera hura. Horregatik, lur premia hazi egin zelako, bost aldiz handitu behar izan zuten 1824 eta 1850 urteen artean. Gaur egun, Père Lachaisek 43 hektarea ditu eta 97 sektoretan banatuta dago.

Bisitatzeko eta hartzen dituen pertsona famatu guztien mausoleoak eta tumuluak aurkitzeko egun bat baino gehiago behar izaten da. Hemen hilobiak handientsuak dira, eta giro ilunak eta estatua berde-urdinxkek, bertiereko zeruaren promesa bailiran, itxura goibel, trinko eta hotsandiko leku batean murgilarazten gaituzte.

Bertan lurperatutako pertsonaien artean James Rothschild nabarmendu daiteke, hilerriko aberatsena izango dena ziurrenik, nahiz eta R bikoitzarekin duen panteoi soilak kontrakoa esaten ahal duen. Marcel Proust, Miguel Ángel Asturias, Honoré de Balzac, Apollinaire poeta eta Jean de La Fontaine fabulista bikaina dira idazleen ordezkariak hemen. Zineman eta antzerkian Molière, Sarah Bernhardt aktorea, eta Yves Montand abeslari eta aktorea, Simone Signoret bere emaztea zenarekin batera lurperaturik dagoena. Musikaren alorrean, denen artean, Frédéric Chopin poloniar konpositorea nabarmentzen da, zeinaren bihotza, musikariaren azken borondateari men eginez, Varsoviako Gurutze Santuaren elizara eraman zuten. Eta han daude, egun, Maria Callas, Edith Piaf eta Isadora Duncan. Amadeo Modigliani, Max Ernst eta Eugène Delacroix margolariak ere aurkitzen ahal dira. Hilkutxa beltz soil batean lurperaturik dago azken hau.

Hilerri honetako hilobi bisitatuenaren ohorezko saria eskuratzeko lehia izugarria da, eta atzerriko bi pertsonaia ospetsuren artean da: Oscar Wilde idazle irlandarra eta Jim Morrison abeslaria. Lehenengoak milaka karmin musuz tindatutako eskultura eder baten ondoan hartu zuen atsedena. Bitxikeria gisa, hilobia apaintzen zuen irudiaren barrabilak hilerriaren zuzendariak erabili zituen paper-zapal gisan urte askoan, bi hiritar “errespetagarrik” eta “ahalketsuk” anputatu ondoren.

Jim Morrison, aldiz, hesiz inguratutako eta lorez estalitako hilobi diskretu batean datza. Bere garaian Morrisonen busto bat ikus zitekeen bertan, baina lapurtu egin zuen norbaitek. Gaur egun, haren ordezt, marmolezko plaka bat ikusten ahal dugu, greziar karaktereetan idatzitako sententzia bat erakusten duena: “Kata ton daimona eaytoy” (deabruak eramandako heroiaoren oroitzapena). Legio bat diren bere jarraitzaileak bere aurrean erretratuak atera, negar egin eta The Doors-ek bere kontzertuak amaitzeko abesten zuten pieza ere kantatzen diote: «This is the end, my only friend, the end».

**Ireki zutenean,
Père Lachaise
hilerriak ez zien
paristarrei batere
graziarik egin,
kanpoaldean
zegoelako; baina
Molière eta La
Fontaineren
gorpuzkiak hara
mugitzeak eta
Balzac-en
eleberrian
agertzeak ezaguna
egin zuten.**

ALABAMA

Eskubide zibilen zero gunean







Ameriketako Estatu Batuetako azken hamarkadetako historian, eskubide zibilen mugimendua izan zen gertatu ziren aldaketa sakonenetako askoren erantzule. Herrialdearen hegoaldean milioika beltzek sufritzen zuten bazterkeria; Alabamako estatuan ageri zen beste inon baino gordinago, eta estatu horretan daude segregazioaren aurkako borrokan mugarri izan ziren leku ugari.

Testua: **Urtzi URRUTIKOETXEA** Argazkiak: **U.U. eta Getty Images**

Eskubide Zibilen ibilbidea duela gutxi eratutako bide turistiko eta historikoa da, AEBetako bi mende baino gehiago markatu zituzten hiriak eta guneak lotzen dituen. Ibilbideak milaka kilometro dituen arren –esklabo-merkataritzan ziharduten portuetatik hasi eta Martin Luther Kingek “Amets bat daukat” esaldia esan zuen Washington hiribururaino–, Alabama da horietatik garrantzitsuenetakoak biltzen dituen estatua, 60ko hamarkadaren ingurumarian izandako gertaera garrantzitsuenen lekuko izan ziren Birmingham, Selma eta Montgomery hirietan, esaterako.

«Sweet home», «etxe goxoa», dio Alabamara sartu garela iragartzen duen seinaleak. Lynyrd Skynyrd taldearen kanta arrakastatsua hegoaldearen aldarrikapen ere bihurtu da, indarkeriak eta gorroto arrazistak markatutako sasoi batean izan arren jatorria. Georgiako estatutik sartu gara –txango hau aurretik edo atzetik luzatzeko aukera paregabea da Atlanta hirian has-tea ibilbidea, Martin Luther Kingen jaioterrian, edo Tennessee estatutik jarraitzea Memphiseraino, Luther King hil zuten lekuraino–; ordu eta erdi pasatxoan Birmingham hiriaren sarreran gaude.

HIRIRIK SEGREGATUENA Kelly Ingram parkea eskubide zibilen aldeko martxa askoren helmuga edo topagunea izan zen, eta gaur egun garai hura



Erreportajea irekitzen, Montgomeryko Kapitolioa. Hor eman zuen hitzaldia Martin Luther Kingek. Hurrengo orrialdean, Rosa Parks-en estatua, autobusera igo eta historia aldarazi zueneko lekuan, Montgomery erdian. Lerroon gainean, The Legacy Museum AEBetako arrazismoaren oroitzapenerako lekua; lintxamenduen memoria gogorra biltzen da bertan. Eskuinean, Birminghameko Eskubide Zibilen Institutua, hiri horretako eta Alabamako borroka ulertzeko ezinbesteko tokia.



gogorarazten duten monumentu ugari daude, zein baino zein hunkigarriagoak. 1963an eskubide zibilen aldeko aktibismoaren gune garrantzitsuenetakoa izan zen hiri hau, milaka manifestari hiriko negozioetako segregazioarekin amaitzen saiatu baitziren (“desegregatzen”), Martin Luther King buru zutela. Ekintza haien aurkako erantzuna ere ez zen nolana hikoia izan, eta Birmingham Eskubide Zibilen Mugimenduaren aurkako erreakzio bortitzenen lekuko izan zen. Bull Connor poliziaburu segregazionistak eraso-zakurrak eta presio handiko ur-kanoiak jaurti zituen ume eta guzti familia osoak elkarrekin zihoazen manifestazioen aurka. Garai haren oroitarrien artean, “Zero gunea” dakarren plaka bat dago: «Eskubide zibilen alde 1963an Birminghamen izandako borrokaren zero gunean zaude. Buruzagi eta herritar afro-amerikarrek erabat segregatutako hiri bateko zapalkuntza borrokatzea erabaki zutenean, bakebidez egin arren, indarkeriarekin eta amorruekin egin zuten topo». Askatasunaren ibilbidean etengabe aurkituko ditugu garai hartako errepresioaren oroitarriak; manifestazioan zihoazen umeak atxilotu zituztela eta polizia manifestariei txakurrekin oldartu zitzaizela oititzen dutenak.

Aste batzuk geroago, Ku Klux Klan-ek eliza baptista batean bonba bat leherrarazi eta lau neskato hil zituen. Parkearen eta tenpluaren aldamean dagoen Eskubide Zibilen Institutua AEBetako hegoaldearen historia ulertzeko abiapunturik onena da. Historia luzerik izan ez arren, daukan hori modu erraz eta masiboan azaltzen eta lantzen ederto dakien herrialdea da Estatu Batuak, dela Gerra Zibila, mendealdeko gerra eta herri indigenen aurkako sarraskiak, dela esklabotza, arrazismoa eta Eskubide Zibilen Mugimendua. Horregatik guztiagatik, ibilbideko leku gehienak nola edo hala ezagunak zaizkigu, han edo hemen ikusitako istorioren bat dakarte gogora.

Baina esperientzia zirraragarria da bertatik bertara ezagutzea segregazioa eta haren aurkako borroka. Birmingham Gerra Zibilaren ostean sortu zen meatze-hiria izan zen, ez zeukan berez konfederatuen memorian txoko berezirik, baina AEBetako hiririk segregatuena bihurtu zen 1950 eta 1960ko hamarkadetarako. Zorrotz betetzen zen bereizketa hori azaltzen du Eskubide Zibilen Institutuko erakusketak: zuriak goiko erpinean, eta, hiriaren espazio fisiko bera okupatzen, eta erabat apartean eta baztertuta, biztanle beltzak. Ez ostatu, ez bulego, ez eta elkarrentzako inolako gunerik ere ez zitzairen onartzen. Erraz ulertzen da, beraz, Eskubide Zibilen Mugimenduaren protesta-eremu inportanteenetakoa bihurtu izana.

Birminghamen ikusitakoaren hausnarrean, hegoalderantz dauzkagu hurrengo geltokiak. Montgomery Alabamako estatuko hiriburura iritsi aurretik Selma herria bisitatu nahi dugu. Soroak eta basoak zeharkatu ditugu, eta autobide eroso eta zabalak utzita errepide txikiagoetan galdu gara. Herri txikiak, nekazari-etxaldeak eta elizak ageri dira bidean. Etengabe eliza protestante berriren bat, edo Jainkoarekin lotura daukan kartel handi bat. Historia hurbilaren pisua handiegia da, eta bidean etena eginda tarte batez urruntzeko lekurik onena dugu Tuscaloosatik gertu dagoen Moundville gune arkeologikoa. Mississippiko kultura indigenaren adierazpen ikusgarrienetakoa da. Duela zortzi mende, europarrak iritsi baino askoz lehenago, eraikitako 29 muino erraldoi daude, goialde laua dutenak. Hiriko bisitan abiatutako

Birmingham Gerra Zibilaren ostean sortu zen meatze-hiria izan zen. Ez zeukan berez konfederatuen memorian txoko berezirik, baina AEBetako hiririk segregatuena bihurtu zen 1950 eta 1960ko hamarkadetarako.



Goian, ezkerrean,
Moundville,
Mississippiko kultura
indigenaren gune
garrantzitsuenetakoa.
Goian, eskuinean,
Selmako Edmund
Pettus zubia, 1965ean
historia aldarazi zuten
lekuetako bat. Erdian,
Birmingham, eskubide
zibilen aldeko borroka-
gune izateaz gain,
irratia eta jazz
musikaren hiri
esanguratsua.



egun intentsoari aire librean amaiera emateko lekurik onena dela iruditu zaigu, berriz ere Selmarantz abiatu aurretik.

LINTXAMENDUEN MEMORIA Igande goizeko patxadak hartu gaitu Alabamako herrian. Eguzkitsu eta fresko dago, jende gutxi dabil kalean, baina elizan kantuak entzuten dira. Alabama ibaia dauka Selmak hegoaldean, eta haren ertzeraino goaz gu ere. Edmund Pettus zubiak Ku Klux Klan-eko buruzagi garrantzitsu batengandik hartu zuen izena. 1965ean Bloody Sunday edo Igande Beltza gertatu zen hemen martxoaren 7an: Selmatik Montgomeryra (87 kilometro) joateko antolatutako protestaren lehen etapa zubia bera igarotzea zen, herria uzteko. Zubiak gora eta gero behera egiten du, ordea, eta manifestariak gora iritsi ziren arte ez zituzten ikusi beste aldean zain zituzten poliziak. Aurrera egiten saiatzean, indarrez oldartu zitzairen polizia. Baina egun hartan telebista eta kazetariak zeuden bertan, eta manifestari odolduen irudiak AEBetako txoko guztietara iritsi ziren. Bi egun beranduago, berriz saiatu ziren, baina poliziaren jarrera ikusita, Martin Luther Kingek martxa geldiarazi eta atzera eginarazi zien jarraitzaileei, bere elizaraino. Gau hartan, Bostondik etorritako James Reeb ekintzailea jipoitu eta hil zuten supremazista zuriek. Hurrengo astean, Lyndon Johnson presidentek boto-eskubidea bermatzeko legea aurkeztu zuen. Martxoaren 2lerako, manifestariak Montgomeryrainoko bidea egitea lortu zuten. Zubia igaro eta beste aldeko oroitarriak ezagututa, Alabamako hiribururantz jarraitu dugu guk ere.

2020an hildako John Lewis eskubide zibilen aldeko buruzagiaren izena ematea proposatu izan da, baina Lewisek berak Edmund Pettus izenarekin jarraitu behar zela azpimarratu izan zuen: «Zubiaren izena mantentzea ez da izena daraman gizonaren babestea, baizik eta onartzea nazio honen eta munduaren aurpegia aldatu zuen Boto Eskubidearen Aldeko Mugimenduaren sinonimoa dela gaur egun».

Asko du Montgomeryk kontatzeko eta bisitatzeko. Estatuko Kapitolioan “sortu” zen AEBetako gerra zibileko konfederazioa, hantxe egin baitzuen zina Jefferson Davis presidente konfederatuak. 1965eko martxa ere leku horretan amaitu zen, eraikineraino doan etorbidearen hasieran iturri dotore bat daukan biribilgunean. Hantxe, kale-bazterrean, eskultura batek Rosa Parks-ek autobus ezaguna hartu zuen lekua adierazten du. Nekatuta zihoan, eta bidaiari zuri bati lekua uzteari eta autobusaren atzealdera joateari uko egin zionean autobusetik kanporatu eta atxilotu egin zuten. Historia idazten ari zen, autobus segregatuen aurkako boikota abian jarrita. Eta gu historia horren atzetik gatoz. Montgomeryko kaleetan dago, etxaldeetan, monumentuetan. Legacy museoa esklaboak giltzapetzen zituzten biltegi zahar batean eraikita dago. Harekin batera, Bakearen eta Justiziaren Oroimenezko Monumentu Nazionala da ezinbestean bisitatu beharreko beste gunea. Esklabotzaren krimenen gordintasunetik hasi eta lintxamenduen zerrendatze izugarria jasotzen du eremuak; astiro-astiro barneratzen zoaz oroitarri baikoitzean, urkamendiaren parez pareko ikuspegi zabala duzula ohartu arte. Lasai eta patxadaz ematen ditugu pausoak, egunotako bisiten digestioak berak denbora behar duela jakitun. Isilik goaz, errespetuz eta zirrarak hartuta, inguruan dabilen bisitarien antzera, baten bati, inpresioari ezin eutsita, malko eta zotinen batek ihes egiten dion arte.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA IRITSI

Europatik doazen hegaldietarako Atlanta da gertuen dagoen aireportua. Birminghametik, berriz, konexio ugari dago AEBetako hiri garrantzitsuenetara.

NOLA MUGITU

Ia ezinbestean autoa alokatu behar da AEBetako leku gehienetan ibiltzeko, nahiz eta posible den txango honetako hirietara autobusez iristea.

OSTATUAK

Alabama iparraldean ez da herrialdeko gunerik turistikoena, baina ez da ostaturik falta, hegoalderantz doazen bidaiari askoren pasabidea baita eta ez baitira gutxi inguruko historia ezagutzera datozenak ere.

JANARIA

AEBetako hegoaldeko sukaldaritzak ospe handia dauka eta Alabama ere tradizio gastronomiko horren parte da.

ZAMARIAIN

Airean zintzilik

Testua eta argazkiak: **Andoni URBISTONDO**







Mendiaz eta naturaz gozatzeko tontorrek igotzea ez da derrigorrezkoa. Haietara iritsi gabe zer gozatu franko dago Euskal Herrian. Aho bete hortz utziko zaituzten parajeekin, gainera. Zamariain behatokia da horietako bat, Nafarroako Aezkoa bailaran. Txango erraza da, eroso, baina ezkutuan dagoena; bertara iritsi arte ikusten ez dena. Iritsitakoan, ordea, begiak itxi ezinik geratuko zara.

T

ontorrek xarma berezia dute. Denoi gustatzen zaigu gailur hau edo beste hura igo dugula esatea. Bista ederrez gozatzearen edo inguruko mendi garaiena igotzearen plazera. Sentsazio polita da, ezin ukatu. Zer esan, baina, tontor batean bukatzen ez diren txangoei buruz? Edo txango horren bukaeran zer ikusten den jakin ez dakigunean? Misterio edo ezjakintasun puntu horrek ere distira ematen dio mendi irteerari. Konbinazio horri nafar Pirinioetako txoko batera zoazela gehitu eta koktela perfektua izanen da.

Ibilaldia hasten den herrira autoz iriste hutsa plazera da beti. Iruñetik iparrera, Erroibar gurutzatuz, Aurizberriko etxe puntadunak ikusiz, Garraldara doan bailara bakartiak dastatu daitezke; Arike Aezkoako hiriburuko martxa, han jarri duten dendaren bueltan, edo Berrendi mendia Hiriberri herrixka zaintzen. Azkenerako, oinez hasteko unea, Garaioan. Pilotaleku ondoan aparkalekua atondu dute herritarrek, eta taberna eta terraza bat ere badauzka, bertaratzen direnak hantxe atseden hartu eta sos batzuk uzteko.

Zamariain behatokira joateko txangoak ez dauka misteriorik batere. Erraza da, eroso, motz samarra eta desnibel gutxikoa. Perfektua familia giroan eta hurrekin egiteko, goiz edo arrats batean. Galbiderik ez daukan ordu eta erdi pasatxoko txangoa da, seinaleztapena nonahi topatuko baitugu hasieratik (seinale horiak eta Herri Bideak). Ibilbide zirkularra egin liteke, Garaioan hasi eta bukatu, txangoko azken ordu erdia bide ezberdinetik egin badaiteke ere.

Garaioan mendebaldera egin behar da, Zamariain-Nikozelea jartzen duen seinaleari segika. Herritik 3.2 kilometro baino ez, eta 200 metroko desnibel apala. Berehala mendi bidea bilakatzen den pista batean barrena hasiko

**Iratiko basoaz
harago, dozenaka
toki interesgarri
eskaintzen ditu
Aezkoa bailarak.
Batzuk, Zamariain
behatokia kasu,
tontorra izan gabe,
eta ezkutuan
mantentzen
direnak.**

gara oinez. Altuera hartzen goazen heinean, Berrendi mendiko hegi osoa agertzen da harro, iparrera, Hiriberri-Aezkoa herrixka zaintzen balego bezala (1.351 metro). Baita Aria herria ere, Aribegainean. Zuhaitz tartean egiten da bidea, eta enborretan eta harrietan kolore berde eta horiko seinale mordoa ikusiko dugu. Horiei jarraitu. Etxola zaharkitu baten parera iritsita, Garaioa herritik datorren pista bat hartu behar da, 200 bat metrotan, eskuinerantz, eta segituan berriro mendi bidea, gure ezkerrean. Baso itxian sartuko gara azkar, eta pago erraldoien pean egin bidea, ia argirik sartzen ez den eremuan barrena.

EZUSTEKO EDERRA Ataka estu bat gurutzatu behar da eta, gerri-bueltak ondoso samar badituzu eta motxila bizkarrean badaramazu, larri ibiliko zara. Motxila kenduz gero, errazago igaroko zara. Xendak goranzko joera galtzen du halako batean, eta arreta zoruan dagoen harri pilaketa batean eta ondoan dagoen enborrean jarri behar da, han adierazten baita hartu behar dugun norabidea: maldan beheara, eta marka hori eta berdeekin. 100 metro eskaseko malda txikia jaitsi eta basoak atea irekiko digu, begi aurrean beste mundu bat agertuz: Zamariain behatokia.

Basoa amildegi sakonean bukatzen da, kilometro batzuk beherago Irati errekek urtetan zizelkatu duen arroilan bukatzen den amildegia. Eta naturaren kapritxo bat bailitzan, txoko horrek begiratoki ikusgarria dauka, airean zintzilik geratzen den bizpahiru metroko harri puska berezia, ezberdina. Bertigoa baduzu, tentuz ibili, ertzera arrimatzeak halako inpresioa sortzen baitu. Munduaren jabe, edo naturaren edertasunaren preso, sentitzen da mendizalea harri haren gainean, Itzagaondoa, Elomendi eta Corona mendiak bistaratzen; txoko hark transmititzen duen patxada eta lasaitasunaz gozatzen.

Harri berezi haien ingurunea ezagutzea komeni. Kontuz ibiliz gero ez dauka arriskurik, terrenoa ziur-ziurra ez bada ere. Zamariain behatokiko harri ikusgarriaren azpian jarrita jabetzen da bat bere benetako tamainaz, edo alde batetik harri gainean jartzen diren mendizaleei argazkiren bat egiterakoan. Naturak halako txoko ederrak sortu dituelako, han minutu batzuk isilik geratu baino gauza hoberik ez!

Itzulerako bidea joanekoan egindako berbera da, lehen ordu erdian, baina adi ibili lehen pausoetan. Zamariainera iristerakoan behatokia ezagutzeko jakin-minak irentsiko zaitu; hala ere, ez galdu alferrik sorpresa polit bat ikusteko aukera: orein baten itxura daukan pago zaharra. Ondoan jarri eta begirada zorroztu arte ez zara jabetzen, baina ondoren oso agerikoa da animalia horrekin daukan antza.

Garaioara bidean, puntu bakarrean jarri beharko dugu arreta: igoeran ikusi dugun etxola zaharkitua. Han, mendiko xendra ezkerrean utzi eta porlanezko pistan beheara egingo dugu, ordu erdi eskasean herrixkaraino iristeko, oso eroso. Garaioan geratu, edo Aezkoako edozein herritan, bisita egiten, merezi baitu. Iratiko basoak jende oldea erakartzen du bertara irailan eta urrian, baina Iratiko basoaz harago dozenaka toki interesgarri eskaintzen ditu Aezkoa bailarak. Batzuk, Zamariain behatokia kasu, tontorra izan gabe, eta ezkutuan mantentzen direnak.



Erreportajea irekitzen duten orrietan, Zamariaingo behatokia, bi mendizalek handik ikusten den paisaiatz gozatzen duten bitartean. Ezkerreko orrian, Zamariaingo ikuspegia: Elomendi ezaguna urrunean eta Corona gertuago. Behean, behatokia iritsi baino lehen dagoen pago bitxia, orein itxurakoa. Lerroon gainean, eta goitik behera: Aezkoako Garaioa herria, Hiriberri-Aezkoa eta Berrendi mendia, eta pago arteko bide hostotsu gozoa.

GIDA PRAKTIKOA

KOKAPENA

Zamariain behatokia Garaioa herrian dago, Aezkoa bailaran, Nafarroako Pirinioetako bihotzean. Erroibar bailara dauka mendebaldera, eta Zaraitzu eta Erronkari ekialdera.

NOLA IRITSI

Iruñetik iparrera egin behar da, Zubiri pasa eta Erro gainetik Erroibar zeharkatu, Aurizberri igaro, eta Auritz eta Orreaga baino lehentxeago, eskuinera egin Aezkoa bailararantz. Garralda eta Arike pasata, Garaioara iritsiko gara galtzeko arriskurik gabe. Ipar Euskal Herritik Nafarroa Behereko Arnegin barrena iristen da Aezkoa bailarara, Ibañeta mendi lepoa gurutzatuta.

EZAUGARRIAK

Iratiko ohiana da Aezkoa bailarako guneko turistiko ezagunena, Europako bigarren baso handiena, baina beste hainbat txoko eta mendi ere bisita daitezke. Orhy mendiaren zaintzapean dago Aezkoa, hamabost herrixkek osatutako bailara. Herri dotoreak, denak. Pagoak nagusi dira zonalde honetan, eta udazken betean eguraldi iragarpena ezagutzea komeni, azarotik aurrera elurra herrietaraino jaisten baita tarteka.

TRANS EUSKAL HERRIA

Zazpi herrialdeak bizikleta gainean

Testua: **Gaizka MARTINEZ** Argazkiak: **Trans Euskal Herria**

Euskal Herriko naturagune garrantzitsuenak mendi-bizikleta gainean eta zazpi hiriburuak errepideko bizikletan lotzea posible da dagoeneko, euskal txirrindulari talde baten urteetako lan eta ekimenari esker. Jantz dezagun kaskoa eta kulota, bete ditzagun anekak eta apailatu dezagun gure txirrindua, herri malkartsu eta askotariko hau, ipar-hego, mendebal-ekialde, ziztu bizian korritzeko.



Transpirenaika prestatzen ari nintzen –idazten du Joseba Zengotitabengoa Lakak bere egunerokoan– eta, a ze kasualitatea, nire eskuetara ‘Pyrenaica’ aldizkariaren 260. zenbakia heldu zen. Bertan, mendi-bizikletan Bardeetan barrena zebilen pertsona bat ikus zitekeen ‘Euskal Herria mendi-bizikletan’ izenburupean. Eta neure burua erronka berrietan pentsatzen hasi zen. Halako ameslariak izango ote gara natura maite dugunok? Erronka polita zen: 29 egun, 1.500 kilometro, Euskal Herriko txokorik politenak ezagutzeko, bizikleta gainean eta bata bestearen atzetik; oraindik paisaia batekin liluraturik zaudenean, beste paisaia bat agertzen zaizula begi aurrean! Edozein erakartzeko abentura, ezta?». Zengotitabengoa bezala, 2014tik eta dakigunez, Julen Iturbe-Ormaetxe eta Xavier Casado txirrindulari ausartak ere erakarri ditu Trans Euskal Herria izeneko abentura honek, hots, zazpi herrialdetako naturagune garrantzitsuenak lotzen dituen ibilbideak. Urdaibaitik Bardeara, hamaika parke natural handi eta beste hainbeste xumeago gurutzatzen ditu, mosaiko handi eta dotore horren teselak –padurak, mendi-larreak, ibaiertzeko basoak, estepak, gatzagak, basamortuak, labarrak eta aintzirak– harilkatuz.



«2013. urtean sortu zen proiektua, Eusko Jaurlaritzaren Kirol Saileko Mikel Bringasen bultzadari esker. Osasunarekin kezkatutik, jarduera fisikoa sustatzeko asmoa zuen hark», esan du Andeka Zubiaur-ek, hasieratik ibilbide honen bultzatzaileetako bat izan denak. Kirolari turismoa ere gehitu nahi zion Bringasek eta, garai hartan Andaluzian arrakasta izaten ari zen Trans Al-Andalus ekimenak inspiraturik, sarean, foroetan, han-hemenka barreiatutik zeuden zenbait mendizale eta txirrindulari batzea pentsatu zuen, ibilbide luzeak eskaintzeko asmoz. Mendi-bizikletazale horietako bakoitzak hobekien ezagutzen zituen tokietako ibilbideak diseinatu eta zabaltzen zituen, baina horiek guztiak bateratzea falta zen. Hala hasi ziren elkartzen eta lana amankomunean jartzen, gaur egun arte, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hamar bat kide, eta Nafarroan ere laguntza izan zuten hastapenetan.

EUSKAL HERRIAN ZEHAR IBILTZEKO GIDA Gallartako Kontxa II meatzetik, Euskal Herriko punturik baxuenetik (itsas mailaren azpitik 60 metrora dago), 1.500 metro pasatxora ere irits daitezkeen Pirinioetako zenbait errepidetara, Euskal Herria gorabeheraz beteriko lurraldea da. Mendi-bizikleta maite duen edonorentzat paradisu txiki bat, baina, aldi berean, oztopo natural ugariz beterikoa. Baita gizakiz ere, Zubiaurrek gogoratzen duenez, «leku batzuetan kotxeekin konpartitu behar baita bidea eta horrek arriskuak baitakartza, zenbait tokitan trafiko gehiegi dagoelako». Euskal Herri osoa zeharkatzeko errepide, bide eta xendra ezberdinak GPS arrastoen bidez bildumatuta daude Trans Euskal Herriaren web orrian (www.transeuskalherria.wordpress.com) eta maiz eguneratu ohi dira arazo berriak sortzen direlako.

Osotara 29 etapa ondu badituzte ere, Trans Euskal Herria ez da lehiaketa bat eta bakoitzaren gustu, behar eta baldintzen arabera moldagarria da. Malgutasuna eta askatasuna nagusi, beraz. «Zatika egin daiteke; bada bizikleta elektrikoarekin egin duenik ere, etapak batu, moztu edo luzatu daitezke...». Ibilbide zirkularrak ere aurkitzen ahal ditugu web orrian, egun gutxi batzuetan eremu mugatu bat ezagutzeko parada ematen dutenak. «Ibilbide handia zatitu eta borobildu egin dugu, txirrindulari askorentzat errazago eta erakargarriago egite aldera».

Orokorrean, hori bai, Zubiaurrek gomendatzen du «ahalik eta pisu gutxien eramatea gainean; gaur egun *bike packing*arekin arazo asko ekidin daitezke». Kanpin-dendarik gabe bidaia egin daiteke zama arintze aldera, baina kostuak gora egingen du orduan. Hiri handietatik at markatuta daude helmugak eta horrek «ostatu aukerak murrizten ditu: landa etxeak, agroturismoa... Egunero, 50 bat euro utziko ditugu ostatuan. Hori saihesteko lagunen etxeak edota aterpeak baliatu ditzakegu».

Lokatzagatik, Gorbeian, Aizkorrin eta Pirinioetan ibiltzea neguan zail samarra izan ohi da. Beraz, antolatzaileen esanetan, uda partea eta udabe-

rria lirateke urtaro onenak kaskoa jantzi eta bi gurgilen gainean gure mendiak ezagutzeko.

AUZOLANAZ, EUSKARAZ ETA IRABAZI-ASMORIK GABE Duela hamar bat urte abian jarritako ekimen hau bertako kulturaren eta izaeraren zenbait elementuren gainean eraiki da. Auzolana eta demokrazia dira horietako bi. Bere onura eta malurekin. «Pertsona guztien iritziak entzun eta irizpide ezberdinak kontuan hartzen dira» etapa bakoitza diseinatzeko orduan; hala, *track* bakoitza ahalik eta era onenean taxututa eta, hasieran, bertatik bertara frogatuta zegoen. Kontrara, Zubiaurren iritziak, funtzionatzeko era horrek «trabak ere sortzen ditu: denbora, eztabaidak eta 'disidentziak'».

Diru irabazirik gabeko ekimena da, gainera. Dena dago sarean, libre eta doan. Eta, barne komunikazio guztiak euskaraz egiten badituzte ere, ele bitan, gazteleraz eta euskaraz, argitara eman ohi dute informazioa: GPS arrastoak edota PDF batean jasotako xehetasunak, gida osotu bat, argazki eta bideoak, iritzi eta aipamenak, oinarriak...

Koronabirusaren itxialdien ondoren «bizikleta piloa saldu zen eta halako bidaiak ere modan jarri dira». Badira Estatuko hainbat tokitatik Euskal Herrira etorri direnak, Valentzia eta Kataluniatik batik bat, Estatuan bizikleta garraiatzeko «tren eta autobusetako baldintzak kaskarrak» diren arren. «Kotxez etorri behar dute bai ala bai», kexu da Zubiaur. Interesa, halarik ere, nabarmena da. «Wikiloc-en, adibidez, 1.000-2.000 ikustaldi artean izan ditu *track* bakoitzak».

ZIKLOTURISTENTZAT ERE BAI Errepideko bizikleta maite dutenentzat, bestetik, Euskal Herriko zazpi hiriburuak batzen dituen 900 kilometro eta 25 etapako ibilbide erosoagoa gorpuztu dute. «Erraza da eta saiatu gara ahalik eta trafiko gutxien duten errepideak aukeratzen». Kostalde guzia jasotzen du eta osatze bidean da Nafarroako hegoaldea hartzen duen 240 kilometroko gehigarria ere. «Txoko asko ezagutzeko aukera ematen du eta komertzialki eta turistikoki potentzial handia du». Izan ere, zikloturismoa hedatuago dagoen Europa iparraldeko bisitariak izan dituzte buruan, hori eratzeko orduan.

Etorkizun hurbilean ez dute halako beste proiektu handirik aurreikusten, ez bada «partaide guztien arteko topaketak egitea», euren web orrian zaleen kezka eta galderak erantzuten jarraitzea eta ibilbideak eguneraturik mantentzea. Eta, noski, ekimena sortzerakoan zuten helbururik behinena betetzea, ibilgailu osasuntsu eta ekologiko hauen gainean gero eta jende gehiago ibil dadila, alegia. «Etxetik atera eta ibilbideak ematen duen aukera izugarria da. Hain leku txikian zaila da aurkitzen halako aniztasuna».



Euskal Herriko naturagune guztietan zehar pasatzen da mendi-bizikletentzako prestatutako Trans Euskal Herria ibilbidea. Argazkiok gure herriaren aniztasunaren lekuko dira, ekimenaren web orrian txoko gehiagoren irudiak aurki daitezkeelarik



Sastraka: ezinezko bidai baten kontakizuna

AZAROA ETA URTARRILA

'Sastraka/Maleza' izenburua duen proiektua arlo ezberdinetan arituak diren lau lagunen emaitza da. Erakusketa bat da, bai, baina hori baino gehiago ere: liburu-objektu elebidun bat –Erein etxeak argitara eramana–, musika emanaldi bat eta gogoeta aunitz. Pello Lizarralde idazle zumarragarrak José Ignacio Agorreta margolariari igorritako 24 testutan du oinarria 'Sastraka'-k, eta handik tiraka sortu zituen, ondoren, Agorretak berak 27 margo. Bilduman dira, halaber, Imanol Ubedaren 12 kanta eta Imanol Rayo zinemagilearen 36 argazki.

Ezinezko bidaia bat da. Heriotzaren kontzientzia apur bat bada ere, izan orduko, gero eta maizago harrapatzen gaitu iraganera itzultzeko bidea hartzeak. Eta itzuli egin behar, jakiteko bidearen buruan itzalak eta dezepzioa besterik ez daudela eta irtenbideren bat bilatzera behartuta zaudela.

Erakusketa Iruñetik eta Gasteiztik igaro ostean, Donostiako Ernest Lluch kultur etxean (Anoetan) izango da azaroaren 18ra arte. Urtarrilean Bilbon ikusiko dute. Estreinaldietan, Imanol Ubedak musika emanaldiak eskainiko ditu. Azaroaren 14an, arratsaldeko 19.00etan, Pello Lizarralde solasean arituko da Beñat Sarasolarekin Literaktum jaialdiaren egitarauaren barnean.

Orain, NAIZ Irratiko uhinetan ere, bidaiari

URRITIK AURRERA


'Bidaiari' aldizkariak bere ispilua izango du aurrerantzean NAIZ Irratian. Alba Cabrerak gidatuko du saioa eta asteazkenero 19.00etan izango da. Bidaiak baino, bidaiariak izango dira NAIZ Bidaiari irratsaioko protagonistak, astero-astero bidaiari bat hurbilduko baita irratiko estudioetara, esperientziak kontatzera.

Milanés Iruñean, eta Xabier Lete in memoriam Bilbon

AZAROAK 13 ETA 14

Azaroaren 13an Iruñeko Baluarte auditorioan izanen da Pablo Milanés trobalari kubatar ospetsua, 'Días de Luz' bira berrian.

Hurrengo egunean, Bilboko Arriaga antzokian, Xabier Lete omenduko du Joxan Goikoetxea musikari lagunak, bere heriotzaren 10. urteurrenean, 'Hesia urraturik' oratorio sinfoniko-koralaz.



ZUBEROAKO XENDRETAN BARRENA


Zuberoako mendietako bidea zabaltzen digu gida honek: Maule eta Garindaine gainetatik, Lexantzü-mendi kaskora, Pixtako ur-jauzian freskura hartuz. Ibilbideak xeheki esplikatutak dira: norabideak, autoak uzteko lekuak eta detaile teknikoak. Gisa horretan, xendra zaharrak edo ezohikoak har daitezke, Pettarra, Arbaila eta Basabürüko lurretan gaindi. Begi kliska kulturekin herrietako bizia ezagutuko dugu, Barkoxen, Etxahun koblakaria gogoratuz. Gure aitzinekoen xendretatik ibiltzeko proposamena da ere, gehienak historiaurreko artzainek ireki baitzituzten. Bost zailtasun mailako ibilbide hauek ibiltari guztiak xoratuko ditu, bisitariak ibiltari amorratuak bezala!

Xiberoako xendak. 59 mendi ibilbide - 35 gailur
Robert Larrandaburü
Sua edizioak, 2022
224 orrialde. Euskara

Zaldibarko zabortegiko "hondamendia" oholtza gainera eraman dute Fuchsek eta Canok

AZAROA ETA ABENDUA

Eskuz esku aritu dira Harkaitz Cano idazlea eta Ximun Fuchs antzerki zuzendaria 'Hondamendia' zuzeneko musikaz, bideoz eta dantzaz osatutako antzezlanari ontzen. Zaldibarko zabortegiaren hondamendiari buruzko obra hau Axut! eta Artedramak eraman dute taula gainera. Luhuson estreinatu ondoren, zenbait emanaldi antolatutak dituzte azaroan eta abenduan: Arrasate, Larresoro, Hendaia, Bilbo, Hernani, Santurtzi, Lesaka, Zarautz, Gernika eta Leitza.



ISTANBULGO ZISTERNA

Urpeko jauregi- basilika misteriotsua



Topkapi jauregia, Galata dorrea eta zubia, Santa Sofia meskita, Meskita Urdina... Kalean bertan eta aurrez aurre topatuko ditugu, zerua ferekatzen, Istanbulgo monumentu ikusgarri eta adierazgarrienak. Baina azken bi horien artean bada zoluak gordetzen duen lur gainekoen mailako jauregi ikusgarri eta miresgarri bat: Istanbulgo Zisterna misteriotsua, Turkiako hiri honen kaleen etengabeko zurrumurru eta zalapartatik atsedean hartzeko parada ematen duena eta beste unibertso batera eramango gaituena.

Testua: **Gaizka MARTINEZ** Argazkiak: **Yasin AKGUL** | AFP

Istanbul osoan barrena badira lurpeko 60 bat ur-zisterna. Bizantziar garaian, K.o. VI. mendean, eraiki ziren eta guztien artean eder eta misteriotsuena Justiniano I.ak altxarazi zuen Urpeko Jauregi edo Zisterna Basilika deritzona da. Hagia Sofiako hego-mendebaldean kokaturik, setio baten aurrean Konstantinoplako Jauregi Handia eta aldirietako biztanleak edateko ura eskuratu zezaten sortu zen, baita Topkapi jauregiko lorategiak ureztatzeko ere aurrerago. Izan ere, Erdi Aroan, hiritik at babesik gabe zeuden akueduktuen bidez eramaten zuten ura hiriraino. Azkar asko, hilabete batzuen buruan, amaitu zuten eraikitzen arkitekturen harribitxi hau ehunka esklabok. Kondairak dio uharka hori osatzen duten estilo ezberdinetako eta marmolezko 336 zutabeetako batean negar malko bat dagoela zizelkaturik, eraikitzen ari zirela hil ziren esklaboei egindako omenaldi gisa.

Zisternaren tamainak harri eta zur uzten zaitu sartu bezain fite. Katedral baten tamaina du, 140 metro luze eta 65 metro zabal, eta, hainbat kalku-



Artelan ugari biltzen ditu Istanbulgo jauregi-basilikak eta azken hilabeteotan berriz ere eskuratu ditu bisitariak.

luren arabera, 80.000-100.000 metro kubiko ur bil zitzakeen. Otomandarraren konkistarraino, 1453. urteraino, egon zen funtzionamenduan, baina ohitura eta sinesmen islamiarreatatik, ordutik aurrera erabiltzeari utzi zioten, urak, purua izateko, mugimenduan egon behar zuelako, ez geldirik. Hala, likido-biltegiatzea baztertu eta ahanzturaz blaitu zen lekua. Harik eta, XVI. mendearen erdialdean, Gyllus ikerlari holandarrak berriz ere deskubritu eta bere bidaia-koadernoetan aurkikuntza argitara eman zuen arte. Beren etxeetan ur-putzuak zeudela zioten hainbat bizilagunen testigantza izan zen gakoa. XIX. mendean zura biltzeko baliatu ostean, 1980ko hamarkadatik aurrera, tokiak duen interes eta edertasuna dela-eta, turismoaren-tzat berrireki zen.

MEDUSAK BURUZ BEHERA Ordutik hona, ehunka zutaberen artean bi izan dira, batik bat, bisitarien arreta erakarri dutenak. Ipar-mendebaldean kokaturik dauden eta Medusa burua duten euskarri bi, zehazkiago. Lurpeko jauregi honen eraikuntzan birziklaturiko hainbat material erabili ziren. Horien artean, mitoz eta kondairaz beteriko erromatarren garaiko artelan handi pare hau. Teoriarik onartuenaren arabera, erromatar inperio berantiarreko beste eraikin batetik ekarriak dira. Ezbairik gabe, lekuaren atmosferak, zeinean isiltasuna eta iluntasuna diren nagusi, areagotzen du misterio hori.

Greziar mitologiaren arabera, Medusa hiru gorgonetako bat da. Ileen ordezt buruan sugeak dituzten lurrazpiko munstro ahaltsuak ziren gorgonak. Ikerlari batzuen ustez, babes funtzioa izango lukete hemen, haien begiradak harri bihurtu baitzezakeen begiralea. Hori ekiditeko, ordeza, zenbait euskarritan, kasu honetan bezala, alderantziz jarri zizkieten buruak, han sartzen zena harri bihurtu ez zezaten.



Medusen begiradapean filmatu dira hemen hainbat pelikula ezagun. Hala nola, Terence Youngen “Errusiatik maitasunez”, Sean Connery-k 007 agentea haragitzen zuelarik, eta, berrikiago, Tom Hanks protagonista eta Dan Brownen izen bereko eleberria oinarri duen “Inferno”-ren amaiera.

ARE HAUSKAITZAGO, ARE MISTERIOTSUAGO Pandemiagatik eta zaharberritze lanengatik 2020. urtean itxi ondoren, Zisterna Basilikak berri ere 2022ko uztailean ireki zizkien ateak bisitariei. Egitura guztia berrikusteaz gain, lurralde honetan ohikoak diren lurrikaren aurrean hauskaitzagoa bihurtu dute eraikina.

Arestian, txalupa txiki batzuekin sartu ohi ziren bertan baina, bisitak errazte aldera, hormigoizko pasabide bat eraiki zuten geroxeago. XXI. mendeko berrikuntzaz geroztik, aldiz, haren ordeaz ur-azalera gehiago hurbiltzen gaituen bide berri batek gidatzen gaitu zisternan barrena. Orain ur garden eta freskoetatik sortzen diren eskultura berriak ere ikusgai daude, izaera zirraragarriagoa emanez jada mistizismoz betetako lekuari.

Horrekin batera, uharkaren ataria birmoldatu dute eta argiztapen berria jarri; ur gainean urdin argi batek eta sabaiaren zubizuloetan gorrixka batek eteten du tokiaren iluntasun naturala. Museo gisara ere funtzionatzen du zisternak eta nazio mailako zein nazioarteko ekitaldi ugariaren egoitza izan ohi da, baita musika emanaldi askorena ere –bisitan bazara eta kontzerturen bat iragarrita ikusten baduzu, ez galdu aukera!–. Hala ere, bisitarien-tzat aldaketarik nabarmenena “Argia” ardatz duen erakusketa da. Hemendik aurrera, argi ikuskizunak izango dira bertan, eraikin aparta ikuskizun are handiagoa bihurtuko dutenak.

GIDA PRAKTIKOA

NON DAGO

Yerebatan kaleko 2. zenbakian dago Istanbulgo Zisterna, Santa Sofia meskitatik mendebaldera. Tranbiaren T1 lineak aldameneko Sultanahmet geltokian utziko gaitu.

ORDUTEGIA

Egunero 9:00etatik 17:30era egon ohi da irekita.

PREZIOA

Helduek 20 lira turkiar (1.10 euro) balio duen sarrera ordaindu behar dute. Ikasleek, berriz, prezio berezia dute: 5 lira (0.30 euro).

ALDIRIETAN

Beste hainbat monumentu garrantzitsu dago Zisterna Basilikaren inguruan, oinez bost minutu baino gutxiagora. Hala nola Santa Sofia edo Haga Sofia meskita, Meskita Urdina, Turkiar eta Islamiar Artearen Museoa, Istanbulgo Arkeologia Museoa eta Cemberlitas Hamama.



TXORI ABESLARIAK, LEHIAN

Thailandiako hegoaldeko Narathiwat probintzian, Malaysia, Thailandia eta Singapurreko 1.500 hegaztik parte hartu zuten, urtero legez, hango txori abeslarien lehiaketan. Soinua, melodia eta bolumena dira sariketan kontuan hartzen diren hiru arloak. Astero antolatzen dira hainakoak Ko Samui uhartean. Madaree TOHLALA | AFP




ORIENT-EXPRESS, DENBORAN BIDAIA

Venezia Simplon Orient-Express luxuzko tren ospetsua Paristik irten eta abuztuaren 31n iritsi zen Istanbulera, Europa osoa zeharkatu ostean. Glamour eta dotoreziaz beteriko munduko bagoi multzo ezagunenak beste garai batean murgiltzen ditu bidaiariak udaro. Yasin AKGUL | AFP



BIZTANLERIK EZ, BAINA LIBURUZ GAINEZKA

Aspaldi ihes egin zuten ia biztanle gehienek Ipar Mazedoniako Babino herritik, baina han darrai Stevo Stepanovskik. Lehen Mundu Gerratik hona bere familiak 20.000 liburu gorde ditu etxean: argazkiak, mapak, hizkuntza gutxituetako liburu eta hiztegiak... Robert ATANOSOVSKI | AFP



NORBERAREN AURAREN ARGAZKIA, MEXIKON

Errestaurazio-erritual, yoga-erretiro eta esperientzia psikodelikoen zaleek Mexikoko hiriburutik gertuko Tepoztlan-en aurkitu dute helmuga. Mesoamerikako tradizio, ekialdeko jakinduria eta *new age*-aren arteko fusioaz baliatuz, norberaren auraren argazkiak eskaintzen dira bertan. Pedro PARDO | AFP



“MAITASUNAREN IRAULTZAK” ARABIA HERRIALDEETAN

“Habibi - Les revolutions de l’amour” erakusketa inauguratu dute Parisko Institut du Monde Araben. Herrialde arabiarretako LGTBI artisten lanak bilduko ditu 2023ko otsaila arte. Kezka sozial, pertsonal eta estetikoak adierazten dituzten beste hainbeste begirada berri. Christophe ARCHAMBAULT | AFP



LORD RAMA JAINKO HINDUAREN GARAIPENA

Sekulako ikuskizuna da Allahabadeko (India) Dusshera edo Vijayadashami jaialdia. Urri inguruan egiten da urtero eta, tenpluak apaintzeaz gain, bazter guztietan aurki daitezke prozesio erlijiosoak, zeinetan izaki mitologikoz mozorrotzen baitira hango biztanleak. Lord Rama jainko hinduak Ravana deabrua garaitu zuela ospatzen dute, baita Durga jainkosak Mahishasura bufaloa garaitu zuela ere. Irudian, hain zuzen, Lord Ramaz maskaraturiko gizona, haizagailu baten aurrean eserita, makillajea lehortu dadin zain. Sanjay KANOJIA | AFP



ARTEAREN KLASIKOAK, ZENTZUMEN GUZTIEN BIDEZ

”Framless” (Mugarik gabe) erakusketa 2022ko urritik 2023ko otsaila bitarte ikusgai izanen da Londresko Marble Arc plazan. Ez zara koa-dro bati begira egonen, koadro horren barnean baizik, zentzumen guziak pizturik. Canaletto, Paul Cezanne, Salvador Dali, Kandinski, Gustav Klimt, Monet, Rembrandt edo Vincent van Goghen pintzel kolpe bakoitzaren, kolore zipriztin bakoitzaren eta inspirazio une bakoitzaren barnean sartuko zara. Inoiz ikusi edo sentitu ez duzun moduan gozatuko duzu arteaz. Adin guzietako bisitariak kitzika-tzeko gai da Erresuma Batuko mota honetako erakusketarik han-diena, zeinak hiru galeria biltzen baititu. Daniel LEAL | AFP



NATURAREN MEMORIA- SOINUA BILTZEN

Haizea belarra igurzten, txoriak, intsektuak, ma-kinak, autoak... Qatarren bizi den frantziar jato-rriko François Guillaume Rouseréren sorkuntza berri bat elikatuko dute grabatzen diharduen natur-soinuek. Emirerrian bi erakusketa ikusgai dituen artista honek dioenez, “arte mota bat da soinu artea, non bitartekari nagusia soinua den, eta helburua entzutea”. Soinu antolatuekin egiten den musika sortzean baino, kanpoan dagoen ho-rrexetan arreta jartzean datza bere lana. Gaur egun, gero eta eginkizun zailagoa. Anne LEVASSEUR | AFP



KAHLO, “ITXURATIK HARATAGO”

“Frida Kahlo, au-delà des apparences” (Itxuratik haratago) erakusketa irailaren 15ean zabaldu zen Parisko Palais Galle-rian eta 2023ko martxora arte ikusgai egongo da. Artista mexikarra jaio eta hazi zen etxean zituen 200 objektu baino gehiago bildu ditu museoak. Horien ar-tean, Kahloren jantziak, osagarriak, es-kutiz bidezko hartu-emanak, kosmetika, sendagaiak eta laguntza ortopedikoak, bai eta bere ekarpen artistikoan inspira-turiko moda garaikideko diseinatzaile nagusien sorkuntzak ere. Emmanuel DUNAND | AFP



ATACAMA, BABESTUTA

Gabriel Boricek, Txileko presidenteak, adierazi zuenez, Atacamako basamortuaren hegoaldea parke nazional baten bitartez babestuko dute. Munduko eskualderik idorrena bada ere, zenbait zonaldeko lurra lorez estaltzen da irail-urria partean. Urte euritsuenetan behintzat bai. Alboko irudian, Santiagotik 500 bat kilometrora dagoen Copiapo eskualdeko aurtengo loreen erretze ikusgarria. Sebastian OJEDA | AFP



BALEEN HERIOTZA TASMANIAKO KOSTALDEAN

Tasmania (Australia) estatuko fauna-zerbitzuak 200 bat kalderoi edo piloto-baleen (*Globicephala*) gorpuak aurkitu zituen mendebaldeko kostaldean. Australiar sorosleek dozena batzuk besterik ezin izan zituzten salbatu. Duela bi urte hemen hilik agertu ziren espezie bereko 470 balea. Heriotza masibo hauen zergatia aztertzen ari dira. Glenn NICHOLLS | AFP



HATSHEPSUT-EN TENPLUA, MODA-IBILTOKI BIHURTURIK

Stefano Ricci Italiako moda etxe ezagunaren diseinuak aurkeztu zituzten Hatshepsut Antzinako Egiptoko faraoiaren tenpluan, Nilo ibaiaren mendebaldeko ertzean, Egipto hegoaldeko Luxor hiriaren parean. Halaxe -eta bi musika kontzertu eskainiz- ospatu zuten luxuzko arropa-markaren 50. urteurrena. Khaled DESOUKI | AFP

**Lurralde
berrietara
goaz**

bidaiari

Hilabetero zure kioskoan **naiz:**-en bidaia aldizkaria euskaraz